

SUSTAPEN BIKOITZERAKO EKITALDIA
FAKTORIA 4.7 ETA RCE BASQUE COUNTRY-NAVARRRE
2022ko abenduaren 15a

SARRERA

UN Etxeak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin (GLEA) lankidetzan, ekitaldi hau prestatu du. Ekitaldiaren xede nagusia da, batetik, publikoki sustatzea **Faktoria 4.7** plataforma, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren (GJH) arloko ezagutza kudeatzeko, eta, bestetik, gizartean aurkeztea **Basque Country-Navarre GJH**ren arloan **Regional Centre of Expertise (RCE)**, **Nazio Batuen Unibertsitateko Jasangarritasunerako Ikasketa Aurreratuen Institutuak** (UNU-IAS, ingelesez) ofizialki aitortu ondoren.

Oro har, *Faktoria 4.7* eta *RCE* aldi berean sustatzeko ekitaldiak helburu du hezkuntza jasangarritasunaren arloan lan egiten duten euskal eta nafar eragileen lan-sarea indartzeko espazioa izatea, eta, bereziki, ezagutzak, esperientziak eta gogoetak partekatzea **Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) integratzeko**.

ESPARRUA

UN Etxea **4.7 Faktoria – Garapen Jasangarrirako Hezkuntza Plataforma Iberoamerikarra** garatzen ari da, helburu honekin: Iberoamerikan Garapen Jasangarrirako Hezkuntza eraldatzea, berrikuntzaren eta ikaskuntza partekatua bidez, eta, horretarako, ahalbidetu nahi da hezkuntzarekin lotura duten eragileek Garapen Jasangarrirako Hezkuntza haien hezkuntza-politiken, -planen eta -praktiken ardatz inspiratzaile gisa hartzea. Proiektuak helburu hori lortu nahi du, honako hauen bidez:

- Lineako plataforma eleaniztuna garatzen, 2030 Agendarako eta Garapen Jasangarrirako Helburuetarako hezkuntza-baliabideak antolatuz eta sailkatuz. (1. ardatza. Ezagutzaren kudeaketa).
- Aliantzak sortzen, erakunde hezitzaileen gaitasunak eta eragina indartzeko, eta 2030 Agendaren aurrerapena babesteko duen kontzientzia kritikoa sortzeko. (2. ardatza. Aliantzak).
- Herritarren garapen jasangarriarekiko hausnarketa, konpromisoa eta ekintza sortzen, genero- eta giza eskubideen ikuspegiarekin. (3. ardatza. Komunikazioa).

Zehazki, *Faktoria 4.7* Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren arloan kalitatezko tresna pedagogikoetan interesa duen edozein eragileren esku jarriko dituen **atari digitala** sortzen, elikatzen eta kudeatzen ari da, Iberoamerikan genero- eta eskubide-ikuspegia duen Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren arloko kalitatezko tresna pedagogikoekiko sarbidea demokratizatze xedez, eta **1. ardatzaren barruan (Ezagutzaren kudeaketa)**. Zehatz-mehatz esanda, honako hauek identifikatu, bildu eta zabaldu dira: baliabide pedagogikoak, materialak, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzarako euskarriak eta jardunbide egokiak, gizarte pedagogia eta herritarren partaidetza Garapen Jasangarrirako Helburuetan eta 2030 Agendarekin lotutako eremu guztietan, 2030 Agendaren zeharkako balioekin koherenteak direnak (jasangarritasuna, giza eskubideak, genero-zuzentasuna eta -berdintasuna eta kulturartekotasuna).

1. ardatzeko jardueren barruan, honako hauek daude:

- Identifikatzea, biltzea eta sistematizatzea baliabide pedagogikoak, materialak, euskarriak eta GJHko jardunbide egokiak, publiko desberdinentzako gizarte- pedagogia eta herritarren partaidetza GJH bakoitzean: Lehen Hezkuntza, Batxilergoa, Prestakuntza tekniko eta profesionala, Unibertsitatea, Helduen Hezkuntza eta kolektibo espezifikoak (erakunde publikoak, sektore pribatua, komunikabideak), bai eta hezkuntza transmititzeko beste modu batzuetara bideratutakoak (hezkuntza ez-formala, hezkuntza informala).
- Plataforma digitala beste hizkuntza batzuetan garatzea: portugesa, katalana, galiziera, Iberoamerikako beste hizkuntza garrantzitsu batzuk.
- *Faktoria 4.7* ezagutza kudeatzeko plataforma komunikatzea eta ezagutzera ematea.

Bestalde, **2. ardatzaren (Aliantzak)** esparruan, UN Etxea **Garapen Jasangarrirako Hezkuntzarako Eskualde Zentro (RCE, ingeleraz)** baten sorrera sustatzen ari da Euskal Herrian, eta **Nazio Batuen Unibertsitateko Jasangarritasunerako Ikasketa Aurreratuen Institutuaren (UNU-IAS, ingelesez)** aitortza jaso du. RCEa **2030 Agendarako Hezkuntzan** erreferentziako espazio multieragile globaletako bat izatea du helburu.

RCE Basque Country-Navarre hezkuntza formalarekin, ez-formalarekin eta informalarakin lotutako erakunde-sare bat da, eta Euskal Herritik haiekin lankidetzan aritzea dugu helburu, garapen jasangarrirako ezagutza ahalbidetzeko. Halaber, UNESCOren Ekintza Globalerako Programaren parte da (**#EDSpara2030**), eta balio erantsi espezifikoa du tokiko konponbide jasangarriak azkartzen baititu.

NBEko agentziekin, hezkuntza formaleko erakundeekin eta mundu osoko hezitzaile informalekin duten lotura ofizialari esker, ezin hobea da RCEren posizioa, tokiko Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren arloko konbentzioak eta mundu mailako programa-esparruak ezartzeko eta aplikatzeko. RCE Basque Country-Navarren **sektore anitzeko eta diziplinarteko kideak** biltzen gara; ez dugu beti batera lan egiten, eta egoera paregabean gaude elkarrizketaren, hezkuntzaren eta ikaskuntzaren bitartez jasangarritasunaren erronkei konponbideak sortzen laguntzeko.

Illo horretatik, RCE Basque Country-Navarrek tokian lortzen duen arrakasta nazioartera eramango da, **mundu osoko RCEn sarearen** bidez. Bereziki, gure RCEk aktiboki hartuko du parte mundu-, eskualde- eta gai-mailan (generoa, gazteria) Eskualdeko Zentroen urteroko topaketetan. Gaur egun, UNU-IASK ofizialki **170 RCE** aintzatetsi ditu **mundu osoan**.

DATA: Osteguna, 2022ko abenduaren 15a
ORDUTEGIA: 18:00etatik 20:00etara.
LEKUA: Ellacuría Aretoa, Deustuko Unibertsitatea (DU), Bilbo

HELBURUAK

- Elkarrizketa-eremua sortzea Euskal Herrian Garapen Jasangarrirako Helburuak lantzeko moduari buruzko **truke formalak eta informalak** ahalbidetzeko.
- **Faktoria 4.7** ezagutza kudeatzeko plataforma **jakinaraztea eta ezagutzera ematea**, eta, bereziki, egitura (gaiak eta azpigaiak), xede publikoaren profilak (identifikatutako segmentuak), taxonomia, eskuragarri dauden baliabide pedagogikoak eta beste eduki batzuk.
- Formalki artikulatzen hastea Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari lotutako Euskal Herriko eragileen arteko elkarrizketa, mundu-mailako nazioarteko aitortza duen tokiko sare berria **ikusaraziz; hots, RCE Basque Country-Navarre** ikusaraziz.

NORENTZAT

RCE osatzen duten 40 erakunde baino gehiagoko ordezkariak (erakunde publikoak, goi-mailako hezkuntzarako eta ikerketarako erakundeak, eskolak, hezkuntza ez-formalaren esparruko erakundeak, GKEak, erakunde zibikoak, fundazio pribatuak eta erakunde sareak).

Halaber, hauek ere gonbidatuta egongo dira: interesa duen pertsona oro, hezkuntza, garapen jasangarri eta gazteria arloko eragileak, arduradun politikoak, profesionalak, hezitzaileak, gazteak, akademikoak, GKEaki, sektore pribatua, komunikabideak eta ikasleak.

Hizlari hauek bilduko dira, eta funtsezko ideiak emango dituzte Topaketan *Faktoria 4.7 eta RCEren* etorkizuneko jarduketarako eta hurrengo urratsetarako:

- Cecilia Barbieri, Mundu mailako Hiritartasunerako eta Bakerako Hezkuntza Ataleko burua, UNESCO
- Daniel Alejandro Crespo Álvarez, Ekuadorreko Hezkuntzako ministroorde titularra
- José Antonio Rodríguez Ranz, EJKo Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea
- Juan José Etxebarria, DUko Unibertsitateko Elkarteko eta 2030 Agendako errektoreordea

BEHIN-BEHINEKO PROGRAMA

- 17:30 - 18:00 IRITSI, ETA ONGIETORRIA PARTE-HARTZAILEEI
- RCE ETA FAKTORIA 4.7 PANTAILA-IRUDIAK
- 18:00 - 18:15 HASIERA INSTITUZIONALA
- **Juan José Etxebarria**, Unibertsitateko Elkarteko eta 2030 Agendako Errektoreordea, Deustuko Unibertsitatea
 - **Nieves Fernández Vicente**, UN Etxea – UNESCOren Euskal Herriko elkarteko Presidentea
- RCE AINTZATESTEN BIDEOAREN EMANALDIA
- 18:15 – 19:00 FACTORÍA 4.7 eta RCE-REKIN FINANTZA-, POLITIKA- ETA ERAKUNDE-ARLOKO KONPROMISOAK AURKEZTEKO MAILA HANDIKO MAHAI-INGURUA
- **Cecilia Barbieri**, Mundu-mailako Hiritartasunerako eta Bakerako Hezkuntza Ataleko Burua, UNESCO
 - **Daniel Alejandro Crespo Álvarez**, Ekuadorreko Hezkuntzako Ministrorde Titularra
 - **José Antonio Rodríguez Ranz**, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordea
 - **Sergio Caballero**, UNESCO Katedraren Zuzendaria, Deustuko Unibertsitatea
- Moderatzailea: **Arantza Acha de la Presa**, UN Etxea - UNESCOren Euskal Herriko elkartearen zuzendaria
- 19:00 - 19:20 HEZKUNTZA-PROIEKTUEN AURKEZPEN OFIZIALAK
- **Faktoria 4.7 ezagutza kudeatzeko plataforma**
 - **Regional Centre of Expertise (RCE) in Education for Sustainable Development (ESD) Basque Country-Navarre**
- Aurkezlea: **Samuel Fernández Diekert**, Factoría 4.7 hezkuntza-programa, UN Etxea – UNESCOren Euskal Herriko elkarretea eta **Javier González**, Dr.Minsky
- BERTARATUTAKOEN GALDERAK EDO AURKEZPENAK
- 19:20 - 19:30 TALDEKO ARGAZKIAK
- RCE Basque Country-Navarreko erakundearen ordezkariak
 - RCEko euskal erakundearen ordezkariak
 - RCEko nafar erakundearen ordezkariak
 - EHUS erakundeak
 - Mahai-inguru instituzionaleko parte-hartzaileak
 - Bertaratutako agintari ofizialak
- 19:30 AMAIERA
- 19:30 - 20:00 CATERINGA ETA TRUKE INFORMALERAKO TARTEA